

Idazkari nagusia den Mitxel Lakuntza-ren hitzaldia

ELAren ohiz kanpoko kongresua.
2019ko apirilaren 5a



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

“Lau trantsizio bultzatu nahi ditu ELAk: demokratikoa, soziala, ekologista eta feminista”

Aldez aurretik, nire izenean eta atzean dudan talde zoragarri honen izenean, eskerrik asko. Eskerrik asko eman diguzuen nolnahi ematen ez den gauza batengatik, konfiantza eta babesia.

Sindikatu honen gidaritzza gure esku jarri duzue; askotan esaten dugu: ELA ez dago ulertzerik talde lanik gabe. Proiektu kolektiboa da gurea, zuzendaritzatik hasita.

Talde bat aukeratu duzue dauzkagun erronkei erantzuteko, baina esango nuke ez dela hori inportanteena.

OINARRIEN SENDOTASUNA

Nekez egingo luke aurrera edozein zuzendaritzak ELAk urteetan lortutako sendotasuna kontutan hartu gabe.

Non dago ELAren sekretua? Sindikatuaren oinarri sendo batzuk konpartitzen ditugu:

Konfederazioaren indarra, afiliazioaren garrantzia, antolatze beharra, erresistentzi kutxa, eta batez ere gure autonomiaren balioa. Guzti honi esker du sindikatu honek duen kohesio eta batasuna.

23 urterekin afilatu nintzen ELAn. Banekien sindikatu borrokalari zela, sindikatu abertzalea ere bai, baina gerora ohartu nintzen beharbada gauza inportanteenaz, autonomiaren balioaz.

ELAk argi hitz egiten du. Badakigu denak ez daudela gurekin ados; ez dugu hori bilatzen, baina ados egon ala ez, erraz ulertzen zaigu. Denetan ez dugu asmatuko, baina argi hitz egiten dugu ahal dugu-

lako, ez gaudelako inorekin zorretan, ezta beste inoren menpe ere.

HISTORIARI AITORTZA

Norbaitekin zorretan bagaude, hori posible egin zutenekin da. Gure aurretik urteetan, hamarkadetan ELAren proiektua defenditu duten militanteekin. Utzi gintuztenak eta gurekin daudenak, emakume eta gizon horientzat gure bene-benetako eskerra eta aitortza.

ELAren III Kongresua Eibarren egin zenerako jaioa nintzen. Han jarritako oinarri sendo haiek inoiz baino biziago daude; horrela izan dadin urte askotarako arduraren zama horrekin aurrera egiteko asmoa dugu.

AURREAN DUGUNA

Zer dugu aurrean? Kapitalismoaren gorakada eta oldarraldi bat bizi dugu. Mundu mailan ematen den errealitate bat. Elite enpresarial, ekonomiko, mediatiko eta politikoen eraso, helburu batekin: jende gehiena pobretzea gutxi batzuk aberasteko. Helburua hori bada, aberastasunaren aldeko borroka baino gehiago bihurtu da hau. Egunetik egunera bertsiorik bortitzena ikusten ari gara; gerrak, migrazioak, gosea edo planetaren beroketa eragiten dutenak.

Gizatasuna kendu nahi digute, emakumeen aurkako indarkeria erlatibizatu edo existitzen denik ere ukatzen dutenean, harresiak eraikitzen direnean eta AITA MARI bezalako itsasontziei baimenik ematen ez zaienean. Bizitzak salbatzeko baimenak dira ukatzen direnak!!

Eskuin muturreko politikak hedatzen ari dira munduan zehar. Historiak agerian uzten duen bezala, kapitalismoaren tresna eta aurpegiak basatiena. Gatazka horizontala bilatzen duena, arrazismo, matxismo eta LGTB fobiaren bitartez, eta ez bertikala, eliteen aurkakoa, banku edo multinazionalen aurkakoa.

Hala ere, garai hauetan badaude albiste onak, feminismoa esaterako: itxaropenerako olatu bat jarri da martxan, baita ere klase borrokari dimentsio berri bat ematen diona, soldatapeko langileetatik harago zabaldu egiten baitu begirada aitortu gabeko lanetan ari diren emakumeengana, prekarioengana, langabeengana...

Beraz, sistema eta ideologia baten aurka ari gara borrokan. Neoliberalismoaren agendaren kontra; indibidualismoaren kontra, elkartasun ezaren kontra, hetero-patriarkatuaren kontra, arrazakeriaren kontra, aberastasuna pilatzearen kontra... Etengabeko borrokan ari gara.

Euskal Herrira etorrita, agenda neoliberal hori ere indarrean dago. Lan munduan zer gertatzen ari den besterik ez da ikusi behar. Gero eta zailagoa da kontratu iraunkor bat edukitzea, gero eta errazagoa da galtzea lortzen denean. Soldaten aurkako erasoaldi bat jasan dugu egin diren lan erreformekin; estatulizazioaren bitartez, azpikontratazioaren bitartez, autonomo faltsuak... Gazteen langabezia Europako altuenetakoa da oraindik.

Arlo sozialean egiten diren politika publikoak interes ekonomiko eta patronalen mesedetan eginak daude.

Baina ez dezagun pentsa dena Madrilen errua denik. Gure gobernuen esku daude zenbait gauza ez dira egiten ari; ez da fiskalitatea ikutu nahi, beraz, inbertsio publikorik ez.

GASTU SOZIALA. EBeko batez bestekoa berdintzeko 2.700 milioi euro beharko genituzke EAEn eta 1.300 milioi Nafarroan.

ENPLEGU PUBLIKOA KONSOLIDATU. Gure Administrazioak dira Euskal Herriko ETTrik handienak. %40ko behin-behinekotasuna mantentzen dute sektore batzuetan. Zer nolako enplegu planak egin-

go dituzte sektore pribaturako? Zer eredu ematen dute?

AHTri eta horrelako proiektuei ematen zaie lehentasuna. Rajoyren gobernuko ministro batek Urkulluri esan zion bezala: "orain ulertzen dut zuen premia, zuek nahi duzuen lizitazioak dira". Horrela egiten dira negozioak herri honetan, lizitazioak gero eta merkeago emanez, sasi-esklabismora iritsi arte. 9 langile hil dira AHTren obretan.

Ez da ELA herri honetan gertatzen ari denaz irakurketa okerra egiten ari dena; gero eta jende gehiago bizi da Euskal Herri prekario batean. Oreka guztiak desegiten ari dira.

ZER EGITEN DUTEN GURE AGINTARIEK?

NAFARROA

Nafarroan aldaketa politiko eta soziala egin gabe dago, oraindik han mantentzen dugu esandakoa.

Egia da gauzak egin direla, eta txalotu ditugu; memoria historikoan, biktima guztien onarpenean, euskarari, klientelismo patronal eta sindikala desegitearen aldera...

Baina gobernu honek eta laukoak etxeko-lan dextente utzi dituzte egin gabe.

Gehiago kritikatu dugu egin ez dena egin dena baino. Egitura fiskala gutxi gora behera UPNk utzi zuena da. Alde izugarria dago Europarekiko enpresen eta kapital errenten mesederako. Enplegu publikoan ez da behin-behinekotasuna jaitsi.

Ez da keinu bat ere egin Madrildik ezartzen diren neurri antisozialen eta autogobernuaren kontra. Gastu arau eta konbenio ekonomikoaren superavitaren negoziazioa.

Erregimenekoak ez ditugu ezta urrundik ere ikusi nahi. Horregatik defendatzen dugu aldaketa. Horregatik uste dugu sindikatu baten ekarpena ezin dela inola ere izan isiltasuna eta konplazentzia.

Zintzotasunez eta exigenziaz zuzendu ditugu gure kritikak eta ekimenak, eta badakigu Gobernuak eta laukoak ez dituztela beti ongi ulertu.

Nafarroan ELAk ez du aldaketaren beharra ezbaian jarri; bai, ordea, aldaketaren sakontasuna. CENen poztasuna, adibide gisa.

Eusko Jaurlaritzarekin alderatuta egia da politika ekonomikoa, fiskala eta laborala ez dela hain desberdina, bai ordea, boterearen kudeaketa nola ulertzen den.

URKULLUREN GOBERNUA

Urkulluren gobernua gero eta autoritarioagoa da. Egia da gaizki ohituta dagoela, oposizio frontalik gabe baitago eremu instituzionalean. Harremanak izateko aurrealdintza bat ezartzen du: gobernua kritikatzuz gero ez dago ezertaz hitz egiterik.

Behin eta berriro publikoki esan dugu Gobernuarekin egon nahi genuela zenbait gairi buruz hitz egiteko, eta behin eta berriro ukatu zaigu aukera hori (Nafarroan posible izan da).

Gobernu honek benetako gauzetaz ez du hitz egin nahi, agerian geratu da RGIn HELarekin edo aurreko astean 1.200 euroko gutxieneko soldata proposamenarekin. Ez, Urkulluren Gobernuak apostu egiten du Espainiaren erreferentziekin: 1.000 €, bere lizitazioeten prekarietatea hedatzeko. Ongi datorquio Espainiaren arauak prekarietatea hedatzeko.

Urkulluren gobernu honek harrokeria soberan dauka eta altuera demokratikoa faltan.

“Ezkatuko interesak daude greben atzean”, esaten zaigu maiz; hain zaila ote da ulertzea greba baten atzean dagoen gauza bakarra dela langileen lan baldintzen hobetu nahia?

Lan gatazkei erreparatzen badiogu, konstante bat ematen da: beti patronalaren alde egiten dute. Itunpeko ikastetxeak. Nork luzatu nahi du greba? Gobernuak esaten du ez duela gatazka honetan zerikusirik, eta lan hitzarmena desagerrarazi nahi duen patronal bat daukagu.

Eskubiaren gorakadarekin oso kezkatuta gaude, baina batez ere espekto politiko osoa eskubiratu egiten delako, eta gurean zer esanik ez. Bereziki kezkarriak dira greben aurrean, jarrera antikolek-

tibista eta despolitizatzailea. Ez dute nahi pertsona eta boterearen artean ez sindikaturik ez mugimendurik egotea, isolatuta nahi dute jendea... hori autoritarismoa da.

Iruzur hutsa den ELKARRIZKETA MAHA! hortara bidali gaituzte behin eta berriz; soberan dakite zertarako den mahai hori, ez dauka mamirik, propaganda hutsa da. Hala ere autoritarismo horretan gairi dira %10a duen sindikatu bati gehiengo ematera

EPAIKETA ETA KOMISARIETAKO GARBIKETAN 200 egun daramate greban; zer egiten du administrazioak? Dekretu baten bitartez zikinkeria asko dagoela eta %100eko Zerbitzu minimoak jartzen ditu grebarekin bukatzeko.

TABAKALERAN. 105 egun greban. Eneko Goia Donostiako alkateak dio: “Sindikatuari ez diogu bilera sartzen utziko”.

GIPUZKOAKO ERRESIDENTZIAK. 40 egun greban. Marra bat pasa dute, oso larria. Gezurretan ari dira. Gure dokumentuak faltsutu dituzte. Joko arau guztiak puskatu dituzte; Espainiako estolderiaren kultura bere egin du Markel Olanoren gobernuak.

Zorionez, esparru hauetan guztietan, langileek sindikatuaren babes osoa izango dute, greba-kutxa izango dute beren zerbitzura, eta erakutsi duten indarrarekin grebek behar beste iraungo dute, gure helburuak bete arte ez dugu etsiko eta borrokan jarraituko dugu.

PATRONALA

Hori al da enpresa kultura berria? ADEGIK egia esateko aukera izan du, baina nahiago izan du gezurretan ibili. Zertarako? Aldundiarekin dauzkan negozio guztiak salbu jartzeko.

Patronala pozik dago; ezin dute disimulatu. Lan erreformak bere neurrira egiten dira eta herri honetan beraiek agintzen dute politika fiskalean.

Beren xedea prekarietatea hedatzea da; estatilizazioa bultzatu behar denean, azpikontratazioa zabaldu eta hitzarmenak blokeatzen dituzte.

PREKARIETATEA, LEHENTASUNA

Gure lehentasuna hain zuzen ere horri guztiari aurre egitea da. Prekarietateari aurre egitea. Bi gauzengatik, printzipioengatik eta beharra dugu-lako; sindikatu batek ezin du beste aldera begira geratu.

Prekarietateak badauka genero irakurketa argia. Lanak sexuaren arabera banatzen dira eta emakumeek egindako lanak edo ez dira aitortzen, edo gutxiago baloratzen dira. Gure herrian emakume eta gizonen arteko soldata arrakala %24 izatea eskandalu bat da.

Prekarietatea bizi duen jendeak beldurraren eraginez antolatzeko zailtasun gehiago dauka; guk beldur horri aurre egiteko tresna izan nahi dugu, eta argi dugu esparru prekarioetan erabilgarriak ez bagara sindikatuak ez duela zentzurik. Okerren daudenak laguntzeko tresna eraginkorra izan nahi dugu.

Hau sindikatuko arduradun guztiei dagokien erronka bat da. Baliabide eta esfortzu asko behar dira horretarako. Eta militante guztien lana.

Egiturako arduradunetik hasita; prekarietate hori bilatu, eragindako langileak antolatu.

Egia da langileen erabakia dela greba egitea, baina pauso hori ematerakoan hor zaudete zuetako batzuk behar den animoa eta segurtasuna emateko.

Ezin ahaztu ere gure abokatuen ekarpena: ezin dira gatazka batzuk ulertu etxe honetan zerbitzu juridikoek egiten duten lana kontutan hartu gabe.

Eta nola ez, ezinbestekoa dena, ordezkarien parte hartzea, inplikazioa. Hor hasten dira gure aukerak, oinarritik bertatik. Lan militantea da hori, jendearekin egon, afiliatuak zaindu, konbentzitu, animatu... Hauek dira gure oinarriak prekarietateari aurre egiteko.

GREBAK

Asmo horren inguruan ondorio garbi bat atera dugu. GREBA ezinbestekoa da prekarietateari aurre egiteko. Badakigu patronalak eutsiko diola

prekarietateari, altxor bat da beraintzat; horregatik grebak luzeetarako prestatu behar dugu, grebarik gabe lorpen batzuk ez direlako posible.

Greba inongo konplejurik gabe defendatzen jarraitu behar dugu: zergatik?

Bat, aukera bat delako lan baldintzak hobetzeko, eta bi, grebak batzen gaituelako ahalduz gaitu. Gogorrazten digu nortzuk garen, zeren alde borrokatzen dugun eta nor dugun aurrean. Hiru, erreferentzia bat delako gainontzeko langileentzat.

Ezin da ulertu, adibidez, Bizkaiko erresidentzien greba Gipuzkoako erresidentziarik gabe.

Eta beste hainbeste...

Ez da kasualitatea azken aldian izan ditugun grebarik luzeenak eta gogorrenak emakumeenak izatea. Emakumeak langile borrokaren lehen lerroan kokatu dira, sindikalismoaren iruditeria aldatuz. Gatazka hauek gure sindikatuak borroka feministari egiten dioten ekarpen praktikoak dira eta era berean, sindikatu osoa asko ari da ikasten borroka hauetatik.

Greba honetako BERDEA DA MORE BERRIA liburu batean jasota daude bizipen eta irakaspen ederrak. Horietako langile batek dio: "greba bat zaila da, baina denok bizi beharko genuke bat. Indartsuagoak sentitzen gara orain".

Grebak badu ondare ukiezin bat: gizartea oinarritik aldatzen du, kontzientzia sortzen du, baita parte hartzea eta militantzia ere.

Horregatik, gure erresistentzia kutzak ordaintzen dituen 1.100euroak dira sindikatu batek egin dezakeen inbertsiorik hoberenetarikoa bat.

Ez dago sindikalista batentzat greba bat irabaztea baino poz handiagorik. Greba bat irabazten denean, emakume eta gizon horien aurpegietan, besarkadetan eta oiuetan dago mezurik potenteena: "Guk lortu badugu, zergatik zuk ez?"

Sindikalismoaren berri onak grebetan topatzen dira.

Prekarietateak eragiten duen beldurraren aurrean grebak egitea osasun demokratikoaren seinale da,

eta beldurraren eraginez grebarik ez egitea, berriz, autoritarismo kultura nazkagarri baten ondorio. Oso pozik gaude Euskal Herriko langileek greben bitartez osasun demokratikoa erakusten duelako. Etorkizunean are greba gehiago izatea espero dugu.

ERRONKA SOZIALA

Sindikatu honek erronka handiak ditu, baina 10-15 urtera begira badago bat hil ala bizikoa, gizate-ri osoarena gainera, klima aldaketaren erronka hain zuzen. Sindikatua alineatu behar dugu klima aldaketari aurre egiteko behar diren trantsizio guztiekin. Giza-bizitza erdian jarri behar dugu, eta sindikatua horretara konbertitu. Honek esplikatzen du parte batean ere ejekutiban definitzen dugun ardura berria, Maialenek hartzen duena.

Beste norabidean jarri nahi ditugu politika publi-koak, bestelako gizarte baten beharrea gaudelako. Lau trantsizio bultzatu nahi ditu ELAk: demokrati-koa, soziala, ekologista eta feminista.

Borroka horiek hamaika ekimen eta alternatibetan bilakatzen dira Euskal Herria.

ELAk gero eta aktibo eta presenteago egon nahi du borroka hauetan.

ELAk bat egin behar du bestelako mundu bat posible dela oihukatzen duten guztiekin. Borroka sozial guztiekin: euskalgintza, pentsionistak, errefuxia-tuen aldeko eragileak... Badugu zer landu, bai barrura, bai kanpora begira; beraz, Ekintza Sozialaren arduraren bitartez sindikatu hau bultzada emateko prest dago. Ultra-eskuina zabaltzen ari den garai hauetan, sindikatuak eta eragile sozialek aterpe bat izan behar dute faxismoaren gezurretan ez erortze-ko.

Norabide horretan ezkerren beharra dugula esaten dugu behin eta berrero. Ideia bati egin behar zaio aurre: ez dagoela alternatibarik dioten ideia. Tamalez, gizartean sendo errotu dute pentsamolde hau. Horregatik ezin du ezkerrek jokatu eskuinak markatzen duen eremuan. Politika guztia eskuinera mugitzen denean, diskurtso eta praktika erradikalak behar dira. Ez gaitzezen joan munduko beste aldera ezkerreko erreferentzien bila.

Jendearen arazoetatik abiatu eta eraldaketarako politikak behar dira, existitzen ez den zentro horre-tara mugitu beharrea.

TRANTSIZIO DEMOKRATIKO BATEN BEHARREAN GAUDE

Horren alde lan egiteko eta burujabetza prozesu bat irekitzeko ezinbestean hiru ideia hartu behar dira aintzat:

1. Espainian, bere batasuna demokraziaren aurretik jartzen da.

Kontsentsu oso zabala dago horretan, PSOEtik VOXera. Gero eta nabarmenago ultra-eskuinak markatzen du agenda. Guk ikusten dugun Es-painia gero eta bortitzagoa da; Villarejorekin eta bere kloakekin egiten da politika ustela. Bankuak, komunikabideak, alderdiak... ez dira gutxi hari horretatik probesten direnak.

Bestalde, sistema judiziala ez da justizia egiteko erabiltzen, baizik eta errepresioaren "abangoar-dia" bezala. Begibistan dago Kataluniarekin gertatzen ari dena. Madrilen egiten ari direna epaiketa politiko bat da; hitza debekatu nahi bada ere, preso politikoak dira, eta bizi duten egoera bermerik gabea juridikoki, eta onartezina, de-mokratikoki.

Gehiegikeria horiek ez dira berriak Euskal Herrian, esate baterako hor daude zazpi gazte gartzelan, hamairu urteko zigorrekin kasu batzuetan, taber-nako liskar batengatik. Zein izan da grabantea? Euskal Herriko herri batekoak zirela, Altsasukoak.

Egin diren mobilizazio anitz eta erraldoi horien ondorioz Euskal Herrian egun ez du inork za-lantzan jartzen estatuko botere eta estamentu guztiak erabat daudela ideologikoki kontamina-tuak. Eta kontaminazio horretatik alde egin behar dugula.

Estatuan dauden sakoneko adostasun horiek dira dispartzioarekin bukatzeko aukera ematen ez du-tenak. BI atal ixteke daude herri honetan, batetik presoena: Euskal Herrian behar eta nahi ditugu, ezin daiteke normalitaterik egon Madrilekin, eus-kal hiritarren funtsezko eskubideak errespetatzen ez diren bitartean.

Bestalde, biktimak. Guk defendituko dugu, giza eskubideen bulnerazio guzti-guztiak aitortu behar direla. Ez dugu onartuko errelatoaren bataila horrekin gizarte honen parte bat marginatuta utzi nahi bada. Pertsona guztiek eta biktima guztiek daukate duintasun bera.

2. Aldebikotasuna fikzio bat da, EAJren asma-kizun bat.

Soberanistok, egiten duguna egiten dugula, premisa horretatik abiatu beharko genuke, behintzat argi uztea zein dugun aurrean.

Estatuak erabakitzen du noiz, nola eta zer egin gure autogobernuarekin.

Aldebikotasuna ajuste politikak inposatzeko besterik ez da.

3. Ezkerreko soberanistotik zoru bat eraiki.

Fikziorik gabe eta gaudenon artean, zenbat garen kontatzeko beldurrik gabe.

Soberaniak, burujabetzak landuz, pluralean. Estrategia bat gero eta gehiago denon agindupean jartzeko zenbait eremu. Adostasunak landuz, energiari buruz, elikadura, euskara... Burujabetza praktikan defendatzeko aukera bada.

ALIA NTZAK

Erronka guzti hauetarako, sindikalak, sozialak, nazionalak... aliantzen beharrean gaude.

Estrategia partekatzea gustatuko litzaiguke LABekin, indar handiagoa edukitzeko, baina begibistakoa da gaur ezin dugula.

Helburuak partekatu behar dira, oinarri batekin: konpartitu egin behar da grebaren balioa eta autonomia sindikalaren garrantzia.

Aliantzen osasuna neurtu nahi bada grebei erreparatu beharko diegu; grebak elkarrekin egitea izango litzateke seinalerik onena.

GURE ESKU DAGOENA

Bukatzeko, gure esku dauden gauzetaz hitz egin nahiko nuke.

Lantoki bakoitzetik botere sindikala eraiki behar da. Antolakuntzaz eta militantziaz hitz egin behar dugu batez ere. Argi izan behar dugu:

A.- SINDIKATUA TRESNA BAT DA, ETA MILITANTZIA, GURE INDARRA.

Ardura bat dugu, sindikatua ahalik eta sendoenaz izatea eta ahalik eta eraginkorrena. Borrokatzeko prest dagoen guztiak hemen dauka sindikatua. ELAk ez du esaten: "Afilia zaitetz eta zure arazoa konponduko dugu". ELAk beste zerbait eskaintzen du: "hemen duzu sindikatua; antola zaitetz, eta inplikatu, zerbait egitekotan hori baita hasteko modua".

Beraz, sindikatua tresna bat besterik ez da, oso indartsua izan daitekeena, baina ez erabilgarria, militantziaren indarririk ez badu. Militantzia gure motorra da; hau oso kontutan izan behar dugu.

B.- GURE PRAXIA, IKASTEKO ETA HAZTEKO OINARRI.

ELA etengabeko aldaketa egiten ari den erakunde izan behar da. Esperientzia, praxia da ezagutza metatzeko gure iturririk oparoena. Grebak, mobilizazioak, antolakuntzan egiten ditugun saioak dira ikasteko dugun modurik garrantzitsuena. Ezagutza kolektibo hori etengabe prozesatu behar dugu. Horretan saiatzeak abantaila bat du; bidea egitean ikusten dugu nondik jo estrategia batzuk baztertuz eta besteak piztuz. Eta era berean, gure antolakuntza eremuan planifikazioaren kultura txertatu behar dugu, lehentasunak ondo finkatu, bideak ondo markatu gero eta eraginkorragoak izateko.

E.- SINDIKATU FEMINISTA.

Feminismoa denoi dagokigu. Sindikatu eta jendarte hobetu egiten dituelako. Sindikatu hau eraikitzen ari da. Ni eta ELAko beste hainbat gizon eta emakume bezala. Konplexurik gabe, harro baina era berean emakumeei prozesu honetan izan behar duten gidaritza eta tokia

emanez. Gure borroka diskriminazioaren aurka da, desberdintasunaren aurka. Langile klasearen interes orokorrak defendatzen ari garela esaten dugunean, era berean ari al gara emakume eta gizonezkoen eskubideen alde? Hausnarketa honetan ari da sindikatua azken urteetan, genero ekitaterako antolakuntza aldaketa prozesuan. Honek genero ekitatea erdigunean jartzeko gure estrategia sindikala eta antolakuntza eredu bera birpentsatzera garamatza. Erronka handia da, baina prozesu honekin jarraitzea ezinbestekoa da sindikatuarentzat, sindikatu feminista izateko bidean. ELA sindikatu gero eta indartsuagoa izango da antolatzea erabakitzen duten emakumeentzat.

F.- SINDIKATU EUSKALDUNA.

ELA eragile aktiboa izango da euskal langileek euskaraz lan egiteko eskubidea bermatze aldera eta sindikatuak ere konpromisoak hartuko ditu sindikatu barruan ere eskubide hau bermadezagun. Konbentziturik gaude euskara normalizatzeak eragina izango duela klase ikuspuntutik. Identitate kolektibo sendoa bat eraikitzen laguntzen du, eta hau borroka kolektiboak aurrera eramateko ezinbestekoa da. Horregatik guk ere Klika egin dugu eta Korrikan parte hartzeragonbidatzen zaituztegu.

D.- HAUTESKUNDEAK.

Berri on bat dakarkizuegu. ELAk bere muga historikoa hautsi du, noiz eta aste honetan bertan. Sinestezina bada ere, %41,40tik gora bukatu dugu EAEn, eta %23tik gertu Nafarroan. Militanteen lana eskertu nahi nuke, zuen lana dago babes horren atzean. Eskerrik asko zuen zintzotasunarengatik, jendearengandik gertu egoteagatik, borrokazeagatik... eta batez ere ELAren aurpegia izateagatik.

BUKAERA

Bi mezu, bat pertsonalagoa eta bestea, sindikala goa.

ARDURA HANDIA da gaur gure bizkarrean jarri duzuen. Zerbait maite denean defendatu beharra dago.

Lasaitasun bat dudala esan izan dizuet aukera izan dudan bakoitzean, ongi babestua sentitzen naizela, hementxe ondoan duzue nire lasaitasuna, talde zoragarri honek ematen duena.

Apaltasunez egingo dugu.

Denetan ez dugu asmatuko, baina asmatzeko asmoarekin arituko gara beti.

Ilusioz, gauzak hor kanpoan zailak badira ere, sindikatuak badu zer esanik; baliabideak eta gogoia soberan ditugu.

Azken mezu bat eman nahiko nuke bukatzeko:

EZ DA HARIA ETENGO. Sindikatu honek bihar ere gaurko ildoari jarraituko dio. Ez dago gauza iraultzaileagorik jendea antolatzea baino. Horregatik sindikatu honek egindako hautuari jarraipena emango dio; kontrapoterean jarraituko du; antolakuntzaz, militanziaz eta grebak bultzatzen.

Horri eutsiko dio ELAk, lan egiten jarraituko du jendeari boterea emateko.

GORA ELA!

GORA MUNDUKO LANGILERIA!

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA!



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA